

HERRI ZAPALDU BAT: MOZANBIKE

WIRIYAMUO GERTAERAK

Ez da oraingo kontua, baina azken egun hauetan herri honetan egindako hilketak alpatuz mintzatu zaizkigu zenbait berri emaila. Behin eta berriro herri zapaldu baten arazo, egoera larria, ezin bizi, «ordena»-ren jokabidea, indarra, «bakea» eta abar ikus ahal izan ditugu.

Lehenik esan dezagun komunikabide tresnak jauntxo eta indarduen eskutan daudela. Hori argi bai-ngo garbiago nabarmendu zaigu azken gertaera hauekin. Portugaleko gobernuak hasieran gutzia gezur hutsa zela aitortzen zuen, Portugalen etsaien asmakaria hutsa ote zen esan ere bai.

Gerotik, ordea, gauzak hestutuz joan zaizkigu. Caetanok, Portugaleko lehen agintariak, Ingalaterrara egin zuen bisitan gauzak nahastu ziren. Laboristak eta oposizioak zenbait Mozambikoko gertaerak aztertutako eta argi agertarazi behar zirela zioten. Agerkunde eta manifestazioak ere zen falta Ingalaterran egun haietan.

Marcelo Caetanok berak, uztailaren 17an egunkariak adierazten dituzten, eztabaida eta borrokaldi serioak gertatuak zirela eta gertaera horien berri jasotzen ari zela aitortu zuen. Ez zen, beraz, etsaien asmakaria hutsa, zerbaiz larriagoa izan.

Zabalkunde haundiko zenbait aldizkari, «The Times» eta «Le Monde»-k adibidez, gogor astindu dituzte batzuetan, herri gertatutakoaren berri emanaz, bertako misiolarien txostenak argitaratuz. Espainiak, Portugal zor zailan adiskidetzagotik edo, isiltasun nabaria gorde dute. Halere interesgarria diritzagoe «Vi da Nuova» asterokoak uztailaren azken alean argitaratu duen artikulua.

Portugalek bere menpean Afrikan daukan lurraldetan bada borroka-rik, bada gerrilla gisa herria askatzeko egarririk. Portugaldarrek ordena ezarri nahi dute eta ez zuzen-tasunaren arabera, indarraren eta zenbaiten interesaren eraginari jar-raiki baizik.

Indardunek bere haserrea erakutsiz zenbait herri jo eta xehetu dute, hauetakoa duzue, hobekiago esanda zenuten, Wiriyamu herriska. Honen inguruan galdara asko egin ditzake: gauzak nola gertatu ziren? Zenbat izan dira hilak? Nolekoa izango ote da bizirik irauten dutene-torikizuna? Galderen zerrenda luza genezake. Patxada piskabete-kin periodist reportajea egin ere bai. Hain atseginak zaizkigu noiz behinka horrelako lanak!

GALDERA BAKAR BAT

Gure aldetik galdara bakarra izan-go da, edo nahi baduzue galdara baten inguruan egin ditzake gailon-tzeko gutziak. «Le Monde»-k ere



gailontzekoak alde batera utzirik bere mulari, problema guztia-ren mulari heltzeko eskatzen zuen.

Eta problemaren muna honetan datza: zer dela eta Mozambike por-tugaldarren lurralde? Zergatik Afri-kako lurralde horiek Portugaleko es-tadu barruko bezala onartu? Mozam-bike, Angola eta abarren nortasu-na, googa, nahia eta Portugalena ber-dina ote? Orduan zergatik hain-beste istilu, borroka, gorabehera? Etsaien maitzakeraren ondorena ote? Orduan zergatik ez ditu Por-tugalek lezakien leku eta unean be-har bezala salatu?

Galde hauetara jo behar dugu. Izan ere zenbaiten ustez, Portuga-lek herri osoak desegingo ez ba-litu, bere babes «maitzaker» es-kainko balie, neokolonialismo gi-sako batera aldatuko balitz, gutzia legokeela pentsatzen duenik bait baita.

Hirugarren Munduaren arazo-a kon-pundu gabe Laugarrengoz mintzo zaigunik bada. Baina herriari dago-kion eskubide eta bere etorkizuna aukeratzeko almen hori erabili ez-dezan indardunek batera datoz.

Zer da beraz hitz gutxitan egin gogo nahi dutena? Kapitalismoak neo-kapitalismora aldatuz, zenbait lokabidetan amor emanaz, baina le-hengoari eutsiaz, asmatu duela di-rudi. Kolonialismoak ere beste ho-rronbeste egin nahi izan du. Hala-mozuko askatasuna emanaz lehen-go lepa-zintzurretik lotuak dauk-a bere menpeko herriak. Hori da, hain zuzen, komeni zalena. Horre-gatik ozenki aldarrikatuko dute: erren, Portugal, ez masakerik, ez herri hilketarik, ez...

Mozambiken historia triste-a, he-rrri zapaldu baten historia duzue. Eta hemen dago gakoa. Lehenago Biafran, orain Mozambiken, gero... Hego-Afrikan (Afrikako herri zapal-duak baino ez alpatzearen) gerta-era negargarriak ez da faltako. Bai-na, arren, anekdota alde batera utziz, mulara jo dezagun.

MIKEL UGALDE

Kapitalistak eta komunistak eskuz-esku

Nahi gabe ere, Vienako Kongre-soarekin akordatzen da bat: tensio haundien ondoren, haundiek beren interes komunak ezagutu dituzte, eta restaurazioari ekin diote.

Eguzkialde komunista eta men-debal kapitalista, gerraz gero edu-ki dituzten lehiak eta ezinikusiak utz, eta elkarian teknologiko, eko-nomiko, zientifiko eta komertzialean lotu dira. Edo lotzera doaz. Eta in-tereson mende, prest agiri dira, elkarri zenbait kontzesio politiko egiteko ere. Amerika pozik egon daiteke, Indotxinako gudua buka ahal izateko Sobiet Batasunak es-kaini ditzion erraztasun eta zerbi-tzuekin. Sobiet Batasuna pozik egon daiteke, Europa aldean men-de-mende eduki dituen interesak errekonozitu zaizkiolarik: Txinaren arazoan konzentra daiteke, kezka-rik gabe. Sobietarrek jadanik ez dute «Amerika imperialista» zigor-tzen. Eta mendebaleko «demokra-ten» eguzkialdeko diktadurak honez gero ez dirudite hain bildur-garri eta gogakarrak: tonoz txarre-koak bihurtzen ari da diktadura ko-munisten kritika. Bakearen eta koestentziaren euforia honetan, Breshniev zera deklaratu du: he-rri bakoitzak bere nortasuna duen bezalaxe, bere sistema politiko eta sozial-ekonomiko eduki behar due-la. Eta sistema ezberdinen arteko, elkarlanerako ez dagoela eragoz-pe-nik.

Batak ala besteak, orain arte, sistema bion konpundu ezina alda-rrikatu zuten. Orain, ordea, sis-tima diferentzial inportantzia bat-batean gaitzen dute, nonbait: sis-tima diferentzial herrien nortasun diferentiarri dagozkielarik baizik ez dira, inondik ere.

Ahaztu dute, batzuek demokra-zia eta besteak batzuek demokra-zia eta besteak irautu mundiala, beti ere elkarren kontra predika-tuak. Breshniev ustez, politika egitea herri bakoitzaren esku utzi behar omen da («Breshniev do-trinaren» mugen barruan, noski: a-la Txekoslovakia, ibili gabe). Herri bakoitzak ikusi behar omen du, norberantzat sistimarik egokiena zein den. Nazioartean, herri bako-itza-ren egitura politikoan gainetel, elkarlanean lotu behar da. Krustxo-fek lortu ez zuena, Breshnievek lotu du: amerikanoak, frantsesak, alemanak, japonesak asmo hauetaz konbentzitzea. Eta hor hasi dira denak, zein baino zein presa ge-hiagoz, Sobiet Batasunarekin tra-taduak egiten. Dudarik gabe, Bres-hniev esito diplomatiko parega-bea.

Eragozpeenen batzuk baziren, el-karian honetarako. Bigarren Gerra Mundialaren ondoren galditu ziren krisi-uneak (Berlin, Alemaniaren erdibikuntza, Korearen erdibiku-n-tza, Vietnam, Israel/Palestina). Ho-

rien guzian likidazioa ere harriga-ri erraz gertatzen ari da, mundu honek zirti edo zarta egin gabe konpundu ezinezkoak baziruditen ere, lehenago. Mirariak gertatzen dira orain. Nazioarteko problema zkinak lehenbat lehen likidatu be-har bait dira, elkartasunari inolako eragozpenik geldituz dakion. Kon-fliktu denak hautsez estatu behar dira.

Zer gertatzen da? Ekonomiare-n mundu guziko krisia. Problemaon aurrean kiebira egin du fedak sis-timetan.

Horrela USA-ren muga berria URSS omen bada, URSS-en muga berria mendebala da. URSS-ek mendebalaren aurrerapen teknolo-giko eta industrialaren laguntza bi-latzen du, bere ekonomia ustela sanatzeko.

Hortaz ez bait da dudarik gel-ditzen: lehenengo industrializazioa, izugarriko nekez bazen ere, lortu zuen plan sistimak, problema ge-hiegirik inoiz egiten duela jada-nik. Aurret berton Sobiet Batasu-nean seilik batek mendebal eura-pean erositako ogia jaten du. Sei-lik bantatzako mantekila edo gur-na ere Merkatu Komunari erosit-a da. Gatz, mistoak (supizekoak, pospoloak) eta etxe-lanetarako pe-trolia urri daude, eta saltokietan irregulari bakkarik lor daitezke. Erosalek eskatu aima barazkeka-rik ez dago, patataz arrazionatu-rik dute. Laborantza sobietarrek betiko gaitz kroniko sofritzen du: eskasia. Eta lehen hori dela ezku-tatu egin nahi izaten bazen, orain ez.

Sobietarrak garbi erakusten ari dira, kontsumo-ondasunen industri-ari doi-doi edo eskasa dutela, eta hori azkar erakitzeko «kapitalis-ten» laguntza nahi dutela. Sobiet Batasunaren mila burutak bostek (5) daduka auto bat: mila ameri-kanotatik lauren eta berrogeitaseik (46). Auto-industria sobietarra pri-mitihoa da: italiarnek, frantsesak eta alemanek auto-industria moder-no bat altxatzen lagundu behar dute. Alemanek makineria tekni-koreen industria altxatzen. Ameri-kanek laborantza modernizatzen. Eta, arago, Breshnieven ametsak konplizekotan, banku amerikanoak Sobiet Batasunaren izugarriko in-bersioak egitekoak omen dira: le-henengo banku amerikanoak iriki dira Moskun Japonesez eta alema-nek Sibiriako ondasunak esplota-tzen lagundu behar dute.

Sobiet Batasunaren dibisa-kutxa hutsik dago: desarrollatu duen tek-nika izugarria, sektore edo adaska isolatu, bakanduetan, desarrollatu bait du, batez ere harnean eta aeronautikan. Eta apenas dagoen sektoreko komertzializterik, orain-goz, Dibisarik ez edukitzean, lehen-

-gaiekin pagatzen du, Hirugarren Munduak bezalaxe. Breshniev ez da lotsatzen, mendebalean deklaratzeko: «zuek teknologia dadukazue, guk lehen-gaiki: truka ditzagun».

Eta kapitala pronto dago truke-rako: zenbait industria sektorek ihes egiten du mendebalek eguz-kialde: kapitalista alemanentzat irabazi gehiago dakar altzairu eta ehun lantegiak Sobiet Batasunean edo Yugoslabian eratitzeko, eta hemendik erosteak, produktio ho-riek Alemaniaren bertan sortzeko bai-no. Esku-lana merke dago han. Eta berdin: Alemaniako Federalesko izai-garro denak Alemaniako komunistan egiten dira. Erraminta fabrika sako Romanian da. Lehenago Bra-sileria edo Formosara joaten zen bezala, orain eguzkialdeko doa ka-pitala: arrisku guti eta irabazi haundi bala.

Orainutsu, Romanik, prestijio po-litikoaren begirunerik batere gabe, Merkatu Komunak «Hirugarren Mundu» bezala kontsideratzea es-katu eta lortu du. Sobiet Batasu-nak berak ere «tratamendu prefe-renziala» nahi luke (eta batzutan lortzen du). Orain artean Txeko-slovakia bere produktuekin paga-tzen zituen Sobiet Batasunetik har-tutako inportazioak (lehen-gaiki): orain mendebalean erositako paten-teekin pagatu behar dio.

Jakina, erregulatzeko asmatan inor ez dabila hemen: mendebale-merkatu berriak bilatzen ditu, eta lehen-gaiki pagatu ditu. Ez dio bes-terik gabe «lagunduko» Sobiet Ba-tasunari. Eta Sobiet Batasunak mendebaleko teknologia behar du. Ideologia demokratiko edo sozial-iraultzagileak baino bortitzagoak dira interesak.

Eta, jakina denez, interesak tra-tantearen buruz desbaliatu ohi du. Ssaterako, Merkatu Komunak aurret Sobiet Batasunari herrehun mila tonelada gurin saldu dio, Hi-rugarren Munduko askotan nahi izan duen eta ematen ez zaien «sal-neuri preferentziala», hau da, nazioarteko merkatuan baino askoz merkeago. Merkatu Komun-a gus-tora zegoen, askenean «gurin men-dia» inolabait tipitu zuelako. Bresh-nievan, kapitalistek ez bezala, Txileko esperimentu sozialistari la-guntzen bait dio, erositakoaren laurden bat atzera Allendieri saldu dio: erosi baino % 30 garestiago...

Eguzkialde eta mendebala, mun-du honetan herriak tinko-tinkoena lotzen dituen lotkiak lotu ditu: in-teres ekonomiko eta komertzialen lokarri bortitzak. Zer dira, horren ondoan, sistema diferentzial eta ideologia demokratikoak edo sozial-iraultzagileak? Hitzak, hitzak, hitzak...

JOSE AZURMENDI

ATE OPARIAK

GAI TA IRUDI POLITENAK

Victor Pradera, 2
(Esquina Zubieta)

DONOSTI

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta ora joakin bear du baserritar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI



YOGUR

GURELESA

GOGOZKOENA

